

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2012-12-09

DURANGOKO 47. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

## Irudia, lagun baina burujabe

Album ilustratuen uzta oparoa da aurten Durangoko Azokan, argitaletxe batzuek egin duten apustuari esker

### ERREDAKZIOA DONOSTIA

Idazleak eta, bereziki, ilustratzaileak aspaldidanik ari zaizkie eskatzen argitaletxei bertako egileek sortutako album ilustratuen aldeko apustua egiteko; eta album ilustratuak argitaratzean, ez egiteko lekua soilik kanpotik datozen lan euskaratuei. Durangoko Azokaren aurtengo ekitaldia ohi baino oparoagoa izango da bertako egileen album ilustratu berrietan, eta argitaletxe batzuen ausardiari eta lanari zor zaio hori, neurri handi batean. Album ilustratuan, testuak adinako garrantzia du irudiak; testuak adina edo gehiago kontatzen du irudiak; irudia ez da kontakizunaren menpeko elementua, testua bezain elementu burujabea baizik.

Erein argitaletxeak bost album ilustratu berri aurkeztu ditu Durango Azokaren aurreko egunetan. Horieta bi Galtzagorri elkarteak Artelekun antolatutako Marraz(i)ok ilustrazio tailerretan sortutakoak dira, eta tailerraren izenburu bera duen bilduma jarri dute abian: *Basajaun eta Martin*, Yolanda Arrietak idatzi eta Maite Caballerok ilustratua; eta *Mozoloaren bakardadea*, Juan Luis Zabala BERRIAko kazetariak idatzi eta Begoña Durrutik ilustratua; gainerako hirurak Ereinen Albumak bilduman argitaratu dira: *Lauviaren giltza*, Ivan Landak idatzi eta ilustratua; *Gure etxea*, Ruben Ruizek idatzi eta Eider Eibarrek ilustratua eta *Mundua berdea ote da dena?*, Juan Ignacio Mendizabalek idatzi eta ilustratua.

Harkaitz Cano idazleak eta Ignasi Blanch ilustratzaileak duela bi urte gidatutako Marraz(i)ok tailerrean sortuak dira hala *Basajaun eta Martin* nola *Mozoloaren bakardadea* albumak, eta tailer hartan sortutako beste bi album ilustratu argitaratzeko asmoa dute Ereineko arduradunek, aurrerago, Marraz(i)ok bilduman: *Ume Alherdik idatzi eta Idoia*



Yolanda Arrietak idatzi eta Maite Caballerok ilustratu dute *Basajaun eta Martin* albuma. / EREIN



*Ipurtargien festa*, Iñaki Zubeldiak idatzi eta Estibalitz Jalonek marraztua. / DENONARTEAN

### Albisterik...

#### IRAKURRIENAK

#### Bozkatuenak

#### Bidalienak

- 1 Konstituzionalak gaur azter dezake Gabonetako lansaria ordaintzearen kontrako Espainaren helegitea
- 2 EHUK ez du abenduko ordainsaria pagatuko
- 3 Dimisioa eman du Maliko lehen ministroak, militarrek abilotu eta gubira
- 4 Andreak, "beti marban"
- 5 Rios: "Nazioarteko adituek uste dute orain gizartearen bultzada behar dela"

Sare / berria.info-ko irudiak eta irudiak Beratarbidek ilustratua bata; Leire Bilbaok idatzi eta Iratxe Lopez de Muniainek ilustratua bestea. Xabier Mendiguren Elizegik idatzi eta Aitziber Akerretak ilustratutako *Motozerra* narrazioa ere tailer hartan landutako obra da berez, nahiz eta beste formatu batean eta beste argitaletxe batekin argitaratu zen, 2011n, Elkar argitaletxearen Xaguxar sailean.

### Mezulariren Albokan, hiru



Mezulari argitaletxeak bi bildumaren bidez egiten du album ilustratuen aldeko apustua: Alboka, zazpi urte bitarteko haurrentzako; eta Abarka, helduentzat pentsatua. Alboka bilduman, hiru lan berri ditu aurten Mezularik: *Ai, ai, ai*, Yolanda Arrietak idatzi eta Ainara Azpiatzuk ilustratua; *Gaua balkoian*, Leire Bilbaok idatzi eta Eider Eibarrek ilustratua; eta *Sekretuaren zaporea*, Ana Urkizak idatzi eta Concetta Probanzak ilustratua. Abarka bilduman, ez du aurten liburu berririk Mezularik: Peru Abarka lehiaketako lan sarituak argitaratu ohi dira bilduma horretan, eta aurtengo ekitaldian saria eman gabe uztea erabaki du epaimahaia.

Cenlit argitaletxearen Denonartean zigiluak ere bi album ilustratu berri kaleratu ditu: *Ttalo. Artzain txakurra*, Natalia Soriak idatzi eta ilustratua; eta *Ipurtargien festa*, Iñaki Zubeldiak idatzi eta Estibalitz Jalonek ilustratua. Elkarrek Joxantonio Ormazabal idazlearen eta Iraia Okina ilustratzailearen *Ilargia esnatu da* argitaratu du. Album ilustratuzat jo daiteke *Eguberria. Ohitura, kantu eta istorio* ere, Juan Kruz Igerabidek idatzi eta Elena Odriozolak ilustratua.

Horrez guztiaz gain, Pamielak, urtero bezala, album ilustratuen Etxepare sariaren lan irabazlea argitaratu du, Miren Asiainen *Hara!*, kasu honetan.



Begoña Durrutyk egin ditu Juan Luis Zabalak idatzitako *Mozoloaren bakardadea*-ko irudiak. / ERREN

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa |  

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**  
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140  
Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172  
berria@berria.info - www.berria.info  
Lege Informazioa



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa